


# Bigarren liburukia: ETXE - SENDAGINTZA

Leonie AGUERGARAY, muskildarsari.  
Rémy ACCOCEBERRY, mediku, ligiarrari,  
Maddalen AGUER, sortzez CARRICABURU. Ligi "Dordorrage"koari.  
Allande ARTIGAU "Elixagarai" ligiarrari.  
Jones CARRICABURU "Dordorrage" ligiarrari.  
Joanes CASENAVE HARIGILE "Püntthiri" santagraztarrari.  
Marti DAVANT "Zabalain" larrebiltarrari.  
Eliana HEGUIAPHAL "Kalostra" mauletarsari.  
Jean LARREGLE, zena, Atarratzeko apotekari, aloztarrari. (hila)  
Yvette IDIART. ETXEKOPAR "Etxegoitien" Xarrikotarsari.

*gure eskerrak eta goresmenak  
"züek gabe ezpeitzen deus izanen"*

## Etxe - sendagintza



gintzaz lau pertsona galdekatu ditut, liburuki hontan agertuko diren hiru eta sasi-sendakuntzaz ere erantzun didan bate-na, beste liburuki batean.

Nahiz halaxe mugatu naizen, eta ondoren irakurriko dituzuen galderak egin, zoriak lagundu nau, ezen adinka mailekatu banituen, gertatu zait hiru motatako jakiturien biltzea: zaharraren sasi-erremedioak, artekoaren gaurko errezeta eta erabilkak, eta gazteenak - bitxi dena - bi jakiturien nahasketata bat eman dit, herri-sendakuntzarenak fakultate jakintzarekin batean.

Lau berri-emaileak ikusiz, bi Basabürüko (mendiko) ta bi Pettiarreko (zelaieko) dira. Sasi-sendakuntza eta sendakuntza eztiak aipatu dizkidanak etxe-sendagintzaz aberatsena izan da, belarretan bereiziki, horregatik eta bere eskola handia gatik, beste liburukian agertuko da.

### 1.2. Jakintza jendeen eritzia

Herri-sendakuntza eta sendakuntza ezti berriei buruz apotekari euskaldun baten, eta euskaldun sendagile baten iritziak eskatu ditut, jakiteko ea zer moduz onartzen edo baztertzen zituzten, eta berek zer gogozkatzen zuten, beren fakultate jakituriaz.?

### 1.3. Zaharria, ajeak, gaitzak, ezineriak

Hortarako nire inkestaxoa, sendian, adiskideen artean Zuberoan egin dut eta sintesi moduan abiatu, baina laister konturatu naiz zahar gaixoez arduratzen ziren jendeekin harremanetan sartu behar nuela.

Zuberoan, hiru zahar-etxe mota badira, bata moda zaharrekoa Atarratzeko ospitalea eta hor sartzen diren euskaldunak, gehienak artzain eta laborari, beren giroan, batzutan beren aintziñako lagunartean aurkitzen dira; bigarren mota da Frantziako Osakidetza zerbitzuek kaletar moduan sortua, hiri haundietan lekuri ez duten jende multzoa hartzen duena, erdiak erdaldunak.

Guri gehienik interesatu zaiguna izan da "Etxean-arta" zerbitzua ezen Erizaharzaingoa hori ahalegintzen da zahar gaixoak beren etxeetan edukitzen, halaxe frantses sistema horrek sendotzen gotortzen du, orain arte iraun zuen euskal-

## SARRERA

### 1. ETXE-SENDAKUNTZAREN EGITASMOA

#### 1.1. Orokorki.

Ikerketa hau egingaietan neukalarik, asmo zabalagoak nituen: uste nuen alde batetik bospasei jendei galdetuko niela

"Nola artatzen da gaixoa etxean, sendagilea deitu baino lehen"

Gai hori ez dut aldatu, baina berealaxe ikusi dut nik egiten nizkien ehun ta abar galderei, nasai inardesten zidatela eta lan hau luzeegi bilakatuko zela. Azkenean etxe-senda-

dun ohitura zaharra, alegia zaharren etxean edukitzea. Sistema berri horrek ere ikusiko dugunez baditu bere gora-beherak, baina merkea delako irauten du.

#### 1.4. Goi-mendiko arrixkuak

Berriemaile bat ederki mintzatu zait, suaz, tximistaz, lur osoaz, lur jauziez, lurrikaraz, eta beste goi mendietako ixtripuez eta bereiziki aintzina nola jaitsi egiten ziren zaurituak.

#### 1.5. Jatekoa ta osasuna

Beste berriemaile batek janarien aldaketa, bizimoldeen bilakaeraz eta osasunean daukaten eraginaz hitz egin dit.

#### 1.6. Uren eta iturrien erabileraz

Mende honen hasieran zertan zeuden eta etnologia alde-tik zer irakasten duten erakutsi dugu, beste liburukian "aintzinako sendakuntzaz" delakoan uren kondairatxoak egin ondoren; ez dugu gaia sakondu nahi izan, hortaz tesia baitago Donibane Garaziko Goity apotekariak egina eta talde bat hortan sartua baita, Zuberoan.

#### 1.7. Esaera zaharrak

Hogeigarren mendeko esaeren bidez, joan den mende azkeneko eta gure mende hasierako ustekeria, iritzi eta gogamen batzu azertu ditugu garaiko euskaldunentzat zer zen osasuna eta zer gaitza apur bat argitzeko.

Konturatzen gara lanaren luzetasuna gatik egitasmo eta egitura argi baten egitea ez dela errez izan, beste sailkapenik egin baitzitezkeen: farmazia, sendakuntza hutsa, fisioterapia, mendeak kontutan hartu gabe. Gero zailtasunak ere datoz ez baita beti errez ikusten garai guztitan non den sendakuntza herrikoia eta fakultatekoaren arteko muga.

## 2. ITAUNKETA: ETXE SENDAGINTZAZ INKESTA

Etxe sendakuntzaz etxeko andere ta etxekojaunei galde-  
ekin gogo nituen eta azkenean honetara iritxi naiz:

- neskatila bat: 26 urtekoa (**Maulen**)
- alargunsa bat: 77 urtetakoa (**Santa Grazin**)
- andere ezkondua: 66 urtekoa (**Ligiarra Gameren**)
- gizon zahar ezkondua: 85 urtekoa (**Larrebilen**)

J. M. Barandiaran-en galdeketa erabili dut, ez baitut goizago besterik eskuratu, baina halazere sexubideei, ihardunei buruz eskaz ziren itaunak gaineratuz, eta naski zubereraz jarri ditut galdeak.

Galde guzti horien zerranda bere liburuarekin agertuko da, baina erantzunetan batera sartu gabe, orokorki esan dezakegu, jendeek ez dituztela beti, diren bezala ta azalpen gabe galdera guztiak ulertzen; gero kontutan eduki ez dudana -gehiegi luzatuko baitzen eta hortarako ikur sistemarik ez baita- gehienetan ez dut ipini non luzatzen zuten erantzuten, non parre egiten zuten, eta beren erreakzio jakingarriak, halere jendeek berek, beren hitzez seinalatzen dute askotan, beren ez jakina, beren dudak, beren mugak.

Galde horietatik kanpo uzten nituen berriemaileak desbideraxetan - gehiegi ez ordea - baina halaxen eskatzen ez nituen xehetasun ohargarriak bildu ditut. Oro har, ez dut oztopo gehiegirik izan erantzunen biltzeko, gehiegi eskolatu eta guttiegi eskolatu bi jendeen gatik ez bada.

Lehen saileko galderak gehien bat gaixoen iturriaz, hedatzeaz, kutsuaz, aireaz delarik ez da zailtasun gehiegirik erantzun baten izateko. Gero barruaren garbitzeko galde-  
ekin jarraitzen du galdeketa

- odol kentzea
- urak hartzea
- bentosak
- purgak

Hirugarren sailean, begi, belarri eta hagineta buruan gaude, baina - herri sendagile den J.Casenave-rekin izan ezik, ez dugu ordenik ipini apur bat, nahasia dirudin galde-  
keta hortan, izan ere ez dugu ikusten zertara datorren hagi-  
nen ondotik, haurren ohean txis egitea Barandiaranen itaun-  
ketan : eta zauri txikien artean tartekatua, mutu, gor eta  
motelen kasua utzi dut aurkitu bezala. Agian galderetan logi-  
ka batek ez izateak jendea lagun dezake.

Laugarren sailean azti-sendaketak direlako gehienbat, etxekandere arrazoinzale batek ez dit ezer esan horietaz, baina bai gazteenak eta zaharrenak.

Beste galderak ez dira beti errez sailkatzen sukarra, eztu-  
la, birikatako zer batzuen artean anemia eta beste agertzen  
da, gero urdail bestetakoak nahikoak bildurik daude, eta  
larruminenak ere. Hezurretaz ez da itaunketa hortan galde  
askorik baina petrikillo edo "daunatu" bati egin galderak  
nahikoa ekarri didate, bestalde.

Herioaz jendea aski mintzaten da eta beharbada beste  
norbaitek holako lana egin nahi balu bere itaunketa hortan  
aberastu behar luke, niri behintzat berriemaileek eskatu bai-  
no gehiago eman didate.

Zaharrei buruzko galderak kontutan hartu behar lukete,  
gure garaiko egiturak edo behintzat azken hogei urteetan  
eraikitakoak eta haietan ere itaunketak egin galdeketa bat  
pentsatuz hortarako.

Gero gaixoen eta zaharren etxean edukitzeaz dagoen  
ezkero politika bat, etxean sendatzen diren jendei buruzko  
galdeak behar litezke pentsatu eta hor mikro-itaunketa bat  
egin, edota itaunak, **etxe-sendagintza** delako honetan sar-  
tu.

Aurre-galderetan, berriemaileari buruz egindako itaunke-  
ta laburrean saiatu gara jakiten, nondik ikasi duten beren  
jakitatea, ezen itaunketan ez da hori batera agertzen.  
Irakurtzen al dute? Irakurri al dute? Eskoletan ikasi al dute?  
Irrati edo telebistan sendagintzari buruzko emankizunak,  
saioak, entzuten eta ikusten ote dituzte? Aldizkarietan (ande-  
re aldizkarietan, kirol aldizkarietan) zerbait ikasten dute?  
Hamaika galdera baliteke gaineratzeko, zeren Aintzinako  
Sendagintza ikertu dugunean ikusi baitugu, zer harremanak  
zeuden herri-sendagintza eta fakultatekoaren artean. -

*HORTARAKO NEU EZ APOTEKARI EZ SENDAGILE  
DIPLOMADUN IZANKI, BIOLOGILARI ARRUNTA BAIZIK,  
SENDAGILE ETA FARMAZILARIEI GALDERAK EGITEA ETA  
BEREN ERITZIA ESKATZEN BEHARREZKOA IRUDITU ZAIT  
ETA BALIAGARRI EZEN BATZUTAN, JENDE ARRUNTEK  
BAINO HERRI-SENDAKETA ERREZETA GEHIAGO EMAN  
DIDATEN.*

Itaunketa, erabili dudana, naski bere garaian ona zen,  
baina gure mundua aski aldatu da, galdera berriak sortzeko;  
halere ez ditugu itaun zaharrak baztertu behar, izan ere geuk

uste ez ditugun erabilkak bizirik diraute, edo berriz modan daude. Ezezko bat edo ez jakintasun bat guretzat jakingarri daiteke, gure gizaldiaren argazkia da, beharbada, denborarekin zimelduko, horituko, ezabatuko dena, baina jakiturien gurpilean berriz agertuko dira argazki hortan ikusi direnak, agian.

Itaunketa hortan agertzen ez zena ernalketa, seksu ihardunen aldekoak ziren; egileak hala nahiz, ala garaiak halanahiz: orduan erreza baitzen holako galdera egilea pekatari iriztea. Neroni ere ez zait, lehen berriemailearekin oroitu holako galderen egitea; gero sendabelarren erabileraz neronek egindako itaunketan, galdera horiek agertzen zirela eta berriemaileak - eliza gizon izan arren - albiste emaile argia izan bai nuen, bigarren berriemailearekin ez zitzaidan batere ahaztu egitea, bitartean egia esan, holako gauzak XVIII. mendeko euskal testuetan aurkitu bainituen ere.

Denetara ehun galde baino gehiago zeuden eta jendeen adinaren arauera, itaunketaren erditan atsedean apur bat hartu egin dugu; halere, ez dut sekulan, bi bider egin lana, lehen alditik saiatu naiz galdetzen, osoki galdetzen.

### 3. GALDEKETA GUZTIAK GRABATUZ EGIN DITUT.

Grabatzeak ez ditu berriemaileak oztopatu - mediku bat izan ezik - eta denek laister ahaztu egiten zuten "katxarroa". Bi berriemaileek beren erantzunak irakurri eta zuzendu dituzte, besteekin zen bezala ematea erabaki dut. Beste leku batean aipatuko ditut grafia arazoak, baina testuetan gakoan artean agertuko diren hitzak, euskara batuan dira, zubereazko testu apur bat argitzeko eta oharren ez metatzeko. Testuen aurretik doan "laburpen luzea" euskara batuan da, baina pazentzia apur batekin ondotik doan "corpus"a, zubererazkoa irakurri diteke.

Hona, beraz, lan honen metodologia mugak, baina balitzeko errotan ez bait da irinik edo urunik egiten, lan hau izan dadila besteen zirrikagarri.

#### Bilketa lekuak

Atarratze : Joanes LARREGLE, apotekaria  
 Ligi : Rémy ACCOCEBERRY, sendagilea  
 Allande ARTIGAU "Elixagarai"  
 Maddalen CARRICABURU-AGUER "Dordorrage"  
 Joanes CARRICABURU "Dordorrage"  
 Maule : Leonia AGUERGARAI, zahar erizaintza ardura-duna  
 Yvette ETCHECOPAR, zahar erizaintza idazkari  
 Eliana HEGUIAPHAL, neskatila  
 Larrabile : Martí DAVANT "Zabalain"

### ETXE SENDATZAILEAK

#### Etxe-sendagintzaz itaunketa

Hortarako J. M. Apalategik euskaratu **J. M. Barandiaranen Etnografiako galdeketa baterako gidaliburu**a, Donostian 1985.an A.E.B. bilduman argitaratua oinarritzat hartu eta hartan agertzen direnei ginekologiako **galde-**

#### ra batzu gaineratuz zubereraz jarri dugu galdeketa hau.

1. Zoin ziren, zoin dira eritarzün ezagüenak?
2. Bilhoen koloreak zer salatzen dü osagarriaz? edo bilhoen koloretik ezagützen ahal dea norbait eri dela?
3. Begietan ezagützen ahal dea norbait eri dela?
4. eta bepürüetarik?
5. Zoin dira berez heltzen diren eritarzünak? edo Berhexten zirena kozüz, ustegabetarik, meskabüz eta berez heltzen ziren gaitzak?
6. Zoin dira jenteen tenperamentüak, jiten ahal dea eritarzüna jenteen tenperamentütik?
7. Zoin dira egünorozko bizi moldetik / bizitzeko maneratik horra direnak?
8. Zertarik horra dira ametsak? Eta ameskaistoak?
9. Zer sinesten da ürsainez? zer pentsatzen da?
10. Gaüzako aideaz zer dioie jenteek? (hobeago dela tzarrago dela, zer?)
11. Behar dea leihoa zabalik ützi gaüz kanberetan
12. Zoin dira osagarriaren alte edo etsai diren oihalak?
13. Zertarik horra dira eritarzünak?
14. Zoin dira osagarri marka diren minak?
15. Zoin dira janari osagarriari ogenegile direnak?
16. Zerk freskatzen dü barnea eta zerk berotzen?
17. Eritarzün bat heltzen delarik eta heltzen zelarik nori galtatzen abisü?
18. Jentea pixkortzen delarik zertarik ezagützen da?
19. Osagarriaren begiratzeko zer egin behar da? Eta eritarzünaren hürüntzeko zer?
20. Etxeetan, osagarriaren azkartzeko, sendotzeko zer etxekitzen zen eta zer badüzüe orai?
21. Señatzerik, odol idokitzerik egiten dea? egiten zena. Zuri egin zeizüena eta zerentako?  
 Noiz egiten da señaitea? Zerekin?
22. Maiñürik eta hurtatzerik egiten düzüea? egiten zena? Non, noiz?
23. Godaletik (bentusarik) ezarten düzüea bularrean, bizkarrean? Nork ezarten dütü? Zuri egin deizüea?
24. Goitikaren lagüngarri zer erabilten da? Noiz egiten da, noiz bortxatzen goiti errandatzera?
25. Pürgatzen ziradea eta zerekin? Lehen pürgatzen zindena? Gibeletik ala aitzinetik?
26. Ezürria, hoin-ithoia zer den badakizüa? zertarik horra den?
27. Sinesten dea eritarzün bat maradikatsetik, begi gaistotik edo behargabetik jiten dela?  
 Nola agitzen da eta zer egin behar da ordüan?
28. Contagion-ea nola erraiten da eüskaraz? Zer da? Zoin dira holakoan eritarzünak?
29. Sendotzeko hitzamaiten dea debozionetara joaitea eta norat?
30. Eritarzün zonbaiten sendotzeko keiñürik egiten dea eta orazio-nerik, basa otoiitik?
31. Kabale ta jenteer - gaizkirik gabe - bena desiratzenegiz eritarzün bat emaiten ahal dea?  
 Nola? Zerbait erraitez, so egitez, hunkitzez?
32. Lürpean zerbait sartüz, eritarzün bat galarazten ahal dea? Zoin eta nola?
33. Xahatüz eta fretatüz min bat galeraz ziniro? Zoin?
34. Zerbaiten petik igaraitez, edo gainetik egitez senda ditake?
35. Zerbait hürün urtikitzez, idortzera edo tzükatzera ützi sendotzen dea? Eta zertarik?